



## Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2018ko maiatzaren 14tik 18rako astea

---

### ➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

### ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

### ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: KPI



### Datuaren analisia


uroguneko inflazioaren urte arteko tasa % 1,2koa izan zen apirilean, aurreko hileko datua baino hamarren bat txikiagoa, zerbitzuen prezioaren igoera apalagoaren ondorioz, % 1 garestitu zirenak, artxoko % 1,5aren ondoren. Herrialdeei begiratuta, Alemaniak % 1,6 egin zuen gora apirilean, surri handi batean, elikagaien garestitzearen ondorioz. Frantziak ere % 1,6 egin zuen gora irilean, energiaren garestitzeak bultzatuta. Espainiako inflazioa % 1,1ekoa izan zen, martxoko atua baino hamarren bat txikiagoa, aisialdi eta turismo-sorten kostuak behera egin ondoren, Aste antuko igoeraren ostean.

### Adierazlearen azalpena

Pla hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta atez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak errialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: ZEW SENTIMENDU EKONOMIKOA



#### Datuaren analisia


**bertsiogileen arteko konfiantza ekonomikoa, ZEW** inkestako espektatiben osagaiaren abera, -8,2an mantendu zen maiatzean, mailarik apalena 2012tik, hala ere, bat dator adituen irrekuspenekin. Nolanahi ere, **ekonomiaren gaur egungo egoeraren** gaineko inbertsiogileen baluazioa neurtzen duen adierazlea 87,4ra jaitsi da, iragan hileko 87,9tik, baina espero zena baino gaur bat gorago geratu da.

#### Adierazlearen azalpena

Alemaniko Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko goeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomikoa" islatzeko balio du. ilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten atuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hiletako aurreikuspeni buruz aldetzen zaie adituei.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: EKOIZPEN INDUSTRIALA / XEHEKAKO SALMENTAK



#### Datuaren analisia

**koizpen industrialak** % 0,7 egin zuen gora apirilean, eta dagoeneko hiru hilabetez jarraian egin du gora. Ekonomistek espero zuten % 0,6aren gainera dagoen igoera hau batez ere manuflakturen sektoreari zor zaio, % 0,5 hazi baitzen, bai eta meatzaritzaren sektoreari ere, gasa eta petrolioaren hartzen duena, % 0,1 igo zena.


**xehekako salmentek**, martxoan baino gutxiago hazi baziren ere, erritmo osasuntsua erakutsi zuten. Apirilean % 0,3 egin zuten gora, analistek espero zutenaren bidetik, eta aurreko hiletako datuak gorantz berrikusi ziren.

#### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-ektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Xehakako salmenten adierazleak xehakako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehakako saltegiaren arrakasta neurtzen ditu. Hilero enpresei xehakako merkataritzaren egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: KPI



#### Datuaren analisia

**aponiako KPIaren** urte arteko aldaketaren tasa % 0,6koa izan zen apirilean, aurreko hilean aino 5 hamarren txikiagoa. Azpiko inflazioa, aldiz, % 0,7koa izan zen (produktu energetikoekin ta produktu freskorik gabe), aurreikusitako % 0,8aren eta aurreko % 0,9aren aldean. Iorrenbestez, argi dago BoJ-en % 2ko helburua oraindik urruti dagoela.

#### Adierazlearen azalpena

Pla hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun gultzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen ena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo itxikitzen den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



#### Datuaren analisia

**Industria-ekoizpenak** % 7 egin zuen gora apirilean, analistek egindako % 6,3ko igoseraren irreikuspenak gaindituz, eta martxoan izan zuen zazpi hiletako minimotik gora. Hortaz, ekoizpenaren datua espero baino hobea izan zen, automozioaren eta altzairuaren ekoizpenaren ebekuntzari esker.

#### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-ektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Konomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkunderaren analisia egiteko.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
05/21	Japonia	Balantza komertziala	¥440.0b
05/21	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	0.48
05/22	Espainia	Balantza komertziala	--
05/22	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	8
05/23	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
05/23	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	53.7
05/23	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	57.2
05/23	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	56.8
05/23	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	57.9
05/23	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	53.0
05/23	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	54.6
05/23	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	56.1
05/23	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	54.7
05/23	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	55.1
05/23	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0,5
05/23	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	56.5
05/23	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	54.8
05/23	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
05/23	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% -2.2
05/23	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	0.4
05/23	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
05/24	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% 0,3
05/24	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	10.8
05/24	Frantzia	Enpresen konfiantza	108
05/24	Erresuma Batua	MoM txik. salmentak autoen erregairik gabe	% 0,5
05/24	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	220k
05/24	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza salmenta	% -0.9
05/25	Japonia	YoY Tokioko KPI	% 0,5
05/25	Espainia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	--
05/25	Alemania	IFO enpresen egoera	102.0
05/25	Alemania	IFO aukerak	98.5
05/25	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	105.5
05/25	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.1
05/25	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% -1.4
05/25	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeke Unibertsitatea	98.8
05/25	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
05/25	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--







Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.